


18. atala BANDERA

Jone eta Aritzek hiru aste baino gehiago zeramatzaten lurretako historian zehar bidaiari baina Aritzek gai askori buruzko galderak zituen oraindik bere arreba nagusiarentzat.

- Aizu Jone! – Bota zuen mutilak halako batean – Zergatik dugu lurretan herriko bandera? Beste herri batzuetan ez dute halakorik.
- Galdu egin direlako – Hasi zen azaltzen Jone – Lehen oso garrantzitsuak ziren udal banderak, herrian ospatzen ziren ekintza sozialetan eta erabiltzen ziren, baina 1876an euskaldunon foruak deuseztatu zituztenean banderak ere desagertzen hasi ziren.
- Zergatik baina?
- Kontua da orduan Espainiako bandera erabiltzeko agindu zutela eta hark herrietako banderak ordezkatu zituen.
- Orduan zergatik mantendu da herri batzuetan?
- Dantzagatik Aritz! Dantzari-dantzagatik. Herrietako banderak dantzarako erabiltzen jarraitu zuten eta hala, dantzek iraun zuten herrietan banderek ere iraun zuten.
- Dantzatzen duen herriak bere nortasuna mantentzen du!
- Hori da Aritz – Esan zuen Neskak barreka – Gaur egunera arte iritsi zaigun bandera zaharrena 1911. urtekoa da, lauki granate, arrosa, beix eta horiz osatua eta erdian zortzi puntako izar baten erdian, lurretako ezkutua alde batean eta banderaren data beste aldean.

- Hori da dantzariok erabiltzen duzuen Jone?
- Ez Aritz, banderaren kopia ezberdinak egin dira zeregin ezberdinetarako.
- Ha beno, badu zentzua bai, horrela hobeto mantentzeko.
- Hori da! 1911n egindako bandera Durangoko udalaren esku gelditu zen anexio garaian dantza taldeko tresnekin batera, baina 1968. urtean lurretako dantza taldeko kide batek erraminta haiek handik hartu eta dantzarien lokalean gorde zituen.
- Benetan? - Harritu zen mutila.
- Bai Aritz, eta Durangoko udalean ez ziren ohartu ere egin 1999. Urtean lurretako udalak tramite hura ofizial egiteko eskatu zuen arte.



ARIKETA:

- Koloreztatu ezazu gure herriko bandera.